

## AURKEZPENA

Azken urte hauetan garapenerako lankidetzan ohikoa da krisiaz hitz egitea. Hainbat eremu sozial, politiko edo akademikotan aitortzen da berau aldi konplexu bat igarotzen ari dela, beharbada bere mende Erdiko bizialdian izan duen zailena; halaber, politika garden baten gabeziaren aurrean aurkitzen gara, eta hau hainbat gobernu, GGKE eta nazioarteko erakunde arteko jarraibidetan islatzen da.

Egoera honen aurrean beharrezkoa da beste ikuskera bat, lankidetzaren munduko biztanle guztiei berezkoa zaien berdintasun eta zuzentasunetik datorren eskubide eta betebeharrak gisa kontuan hartuko duena, helburu hori iristeko lankidetzaren tresna eraginkorra baita.

Lankidetzaren mota bat bultzatu behar diren adierazle den erronka baten aurrean aurkitzen gara, ODMei modu eraginkorrean laguntzeko, gizarte zibil, bertako komunitate eta gobernu nazionalen aldetik protagonismoa eta ekintza bateratua eta antolatua sustatuko den erronka.

Horretarako, aparteko garrantzia du Iparreko eta Hegoko eragile desberdinen parte-hartzea eta bateratzea sustatu eta erraztuko duten nazioarteko lankidetzarako modu, metodologia eta estrategietan pentsatzeak, giza garapen iraunkor bat bultzatzea helburu harturik maila guztietan (ekonomiko, politiko, sozial eta kulturazko).

### **Kubaren egitekoa lankidetzan**

Eskualdeko herriek ez bezala, Kubako gizarteak ez dago markaturik, ez muturreko desberdintasun sozioekonomiko batek, ez eta populazioaren zati handi baten miseriak. Milurtekoaren Helburuen ikuspegitik begiratuta, pobrezia aurkako borrokan helburuekiko prebentziozko ekarpen modura interpreta liteke zuzentasunezko garapen sozialean egindako lorpenen zaintza.

Testuinguru sozioekonomiko honetan, lankidetzaren barnean Kubarena kasu paradigmaticoa da, han lankidetzaren deszentralizatua izan baita ohikoena, udal fondoak nabarmentzen direlarik, batez ere udal gobernuen aldetik eragile desberdinen arteko kontzentratze-lanean, bai egindako ahaleginagatik, nola kalitatezko lankidetzaren aldeko bere saiakeragatik. Aipa dezagun eszenatoki hau ere aldagarria dela, eta honen lekuko dugu berriki gobernu espainiarraren eta kubatarraren arteko garapenerako lankidetzaren Batzorde mistoaren akta izenpetzea; datozen lau urtetako lankidetzaren espainiarrak Kuban izango dituen bai baliabideak, nola sektoreak edo ekimenerako gune geografikoak definitzen dituen.

Kubarekin Lankidetzaren izeneko II. Topaketa Estatal hau Iparrean nola Hegoan estrategia bateratuak estimulatzeko aukera gisa aurkezten da, garapeneraren ikuspegi bateratu bat eraikitzeko, erakunde publiko eta gobernu kanpokoaren eta Kubako erakundearen arteko esku-hartze horizontal eta norabide-biko egonkor bat sustatuz.